

ERABAKIA, GETXO RUGBY TALDEA KLUBAK EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAKUNDEAREN DIZIPLINA BATZORDEAK 2016KO APIRILAREN 6AN HARTUTAKO ERABAKIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA EZESTEKOA. ERABAKI HORREN BIDEZ, ERREKURTSOA AURKEZTU DUEN KLUBEKO ENTRENATZAILEARI, [REDACTED] JAUNARI, HILABETERAKO ETETEKO ZIGORRA EZARRI ZITZAION.

---

Espediente-zenbakia: 8-2/2016

### AURREKARIAK

**Lehena**.- 2016ko apirilaren 20an [REDACTED] jaunak, Getxo Rugby Taldeko presidenteak, errekurtsoa aurkeztu zuen Euskadiko Errugbi Federakundearen Diziplina Batzordeak (aurrerantzean EEFDB) 2016ko apirilaren 6an hartutako erabakiaren kontra. Erabaki horren bidez, Getxo Rugby Taldeko entrenatzaileari, [REDACTED] jaunari, 11708589 lizentzia-zenbakidunari, hilabeterako eteteko zigorra ezarri zitzaion, arau-hauste larri batengatik (Partiden eta Lehiaketan Araudiaren 73. artikulua, aurrerantzean PLA). Aipatutako erabaki horretan PLAREN 65. eta 66. artikuluetan ezarritakoa errespetatu beharko dela adierazi zen, zigorra betetzeko.

Era berean, kluba ohartarazi zen (PLAREN 82. artikulua) eta 200 euroko isuna ezarri zitzaion (PLAREN 73. artikulua).

**Bigarrena**.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean KJEB) errekurtsu hau izapidetzea eta Euskadiko Errugbi Federakundeari espedientea eskatzea erabaki zuen. Horrez gain, alegazio egokiak aurkezteko epea eman zion eta 2016ko maiatzaren 9an aurkeztu ziren.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehena**- KJEBk du errekurso hau aztertzeko eskumena, hori xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

**Bigarrena**- KJEBk Getxo Rugby Taldeko entrenatzaileari zigorra ezartzea erabaki zuen, jokozainak partidaren inguruan egindako aktan adierazitakoaren arabera [REDACTED] jauna kanporatu zuelako 16. minutuan, behin eta berriro protestatzeagatik.

**Tercero**- Getxo Rugby Taldea klubak honako hau adierazi du:

1-. Kirol Diziplinako Batzordeak emandako ebazpena legez baliogabea dela, defentsarako eskubide konstituzionala urratzen delako, ez baitaio derrigorrezkoa den audientzia-izapidea eman eta legeriak horretarako ezarritako prozedura guztiz baztertu baita. Hori guztia, Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1 artikulua aplikatuz, eskubide eta askatasun konstituzionalak urratzen dituzten eta legeriak horietarako ezarritako prozedura alde batera utzita egin diren administrazio-ekintzak legez guztiz baliogabeak izango direla xedatzen baitu.

Errekurso-egileak adierazi duenez, Batzordeak ez du ebazpena diziplina-ahalmena arautzen duen araudian ezarritako prozedurari jarraituz eman (ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoa, 116. artikulua; urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretua, Kirol Diziplinako Araudia arautzen duena, 1., 2. eta 15. artikulua eta II. eta III. kapituluak; Euskadiko Errugbi Federakundearen Estatutuak, V. titulua; Euskadiko Errugbi Federakundearen Kirol Diziplinako Araudia, II. titulua, I., II. eta III. kapituluak), *"ez delako espedientea ireki, ez delako hala egiteko agindu eta ez delako derrigorrezko audientzia-izapidea eman"*.

Hain zuzen ere, audientzia-izapidea eman ez denez, legez guztiz baliogabea da, babesgabetasuna eragin delako. Espainiako Konstituzioaren 24.

artikuluari bildutako funtsezko eskubidearen kontra doa hori, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren doktrinak eta jurisprudentziak hainbat epaitan ezarri duten legez.

2.- Baliogabetasuna aitortzen ez bada, hori nekez gerta badaiteke ere, zigorra ezartzeko erabakiaren inguruko alegazioak egin direla.

Hala, klubak jokozainak egindako aktan ageri den adierazpena guztiz faltsua dela dio.

*"Partiduaren lehenengo 16 minutuetan Getxoko entrenatzaileak ez zuen protesta bakarra ere egin. 16. minutuan baino ez zion iritzia eman jokozainari eta ez zen errespetu faltarik egon, ezta manera txarrik ere. Jokozainak momentu hartan esan zion ordezkariari futbol-zelaira joateko eta entrenatzaileari harmailetara joateko agindu zion. Entrenatzaileak agindutakoa egin zuen, inongo oztoporik jarri gabe.*

*Gainera, jokozainak berak jo zuen entrenatzailearengana, harrokeriaz eta probokatuz, eta "ez bazoaz, aktan jasoko dut guztia" esan zion, errieta eginez.*

*Partidaren grabaketan ikus daiteke hori guztia.*

*Diziplina Batzordea 73. artikuluko bigarren paragrafoan oinarritu da ezarritako zigorra arrazoitzeko:*

*"Partidan zehar esleitu zaion tokian egon beharko du eta ezingo die epaileei edo alboko epaileei errieta egin, ezta haiengana jo ere. Paragrafo horretan xedatutakoa errespetatzen ez bada, arau-hauste larritzat joko da eta 1 eta 4 hilabete bitarterako eteteko zigorra ezarriko da.*

*Beste behin, ezarritako zigorra arrazoitzeko emandako azalpenak okerrak dira, akta irakurri ostean ez baita esaten edo ulertzen entrenatzailea esleitu zitzaion tokian zegoenik. Era berean, ezin da esan bere tokitik aldendu zenik eta baten baino gehiagotan epaileari errieta egin zionik.*

*Hori guztia dela bide eta aurkeztutako frogaren aintzat hartuz, zigorra indargabetu ere egin behar da, akta ez delako zuzena eta ez delako behar bezala arrazoitu eta zehapen-araudia behar bezala aplikatu.*

*Aurkeztutako frogari aintzat hartuta, alderdi honek partidako jokozainari zehapen-espedita hasteko eskatu nahi du, 72. artikuluko b) letra (errespetu falta eta manera txarrak) eta c) letra (PLAn bildutako gertakariei buruzko datuen zuzentasunik eza) errespetatu ez izanagatik.*

**Laugarrena.**- Aurkaratu den erabakiaren ustezko baliogabetasunari dagokionez, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak (116. art), urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuak, Kirol Diziplinako Araudia onesten duenak (II. titulua), Euskadiko Errugbi Federakundearen Estatutuek (V. titulua) eta Federakunde horren Kirol Diziplinako Araudiak (19. eta 30. artikuluek) diziplinazko bi prozedura daudela diote: ohiko prozedura eta ezohikoa. Ezohiko prozedura lehentasunaren eta sumarietatearen printzipioetan oinarrituta dago eta batez ere jokoaren edo lehiaketaren arauak hausten diren kasuetan aplikatu daitezke.

Zehazki, Kirol Diziplinako Araudiaren 30. artikuluek honako hau dio prozedura horren inguruan:

*“1.- Jokozainek, epaileek edo Federakundeak jokoaren eta lehiaketaren arauak betetzen direla kontrolatzeko agindu dien pertsonen hartutako erabakien aurkako erreklamazioak arau-hausleak edo bere klubaren ordezkariak dagokion akta jaso eta berrogeita zortzi orduko epean aurkeztu beharko dira. Nolanahi ere, zein proba egitea nahi duen adierazi beharko du alegazioen idatzian.*

*2.- Diziplina Batzordeak aurkaratzea edo erreklamazioa ebatziko du bost eguneko epean, aurreko epea bukatzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori luzatu egin ahalko da proposatutako eta onartutako proba bost eguneko epean egin ezin bada, proba-proposamen hori jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Edonola ere, epea ezingo da hamar egunetik gorakoa izan”.*

Ondorioz, diziplinazko araudi osoak eta zehazki Federakundearen Diziplinako Araudiak jokoaren edo lehiaketaren arauak hausten direnean ezohiko prozedura aplikatzea aurreikusten dute, hori izanik errekurtsio honen xedea. Bizkortasuna da prozedura horren bereizgarrietako bat, lehiaketa normaltasunez eta etenik gabe egiteko. Ohiko prozeduraren epeak eta izapideak murriztea ahalbidetzen du, Konstituzioaren 24. artikuluan ageri den defentsarako funtsezko eskubidea urratu gabe. Izan ere, audientzia-izapiderako ohiko epea murrizten denean ere, gainerako epeen moduan (EEFDBk berak ebazpena emateko duen epea, esaterako), interesdunei 48 orduko epea ematen zaie alegazioak egiteko.

Legeak diziplina-espeditentea izapidetzeko ezarritako prozedurari dagokionez, EEFDBk bost eguneko epearen baitan eman zuen ebazpena (2016ko otsailaren 6an), ordezkariak akta jaso (2016ko otsailaren 2an) eta 48 ordutara (2016ko otsailaren 4an) kontatzen hasita.

Horrenbestez, azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau ondoriozta dezakegu:

1.- Errekurtsioa aurkeztu duen klubak bazekien aktan zer jartzen zuen, klubaren ordezkariak otsailaren 2an (partidaren egunean) sinatu zuela ageri baita espeditentean.

2.- Horrenbestez, errekurtsioa aurkeztu duen klubak araudiak ezarritako 48 orduko epea izan zuen defentsarako eta alegazio egokiak aurkezteko. Ez zuen defentsarako eskubide hori baliatu. Hala ere, Batzordeak Euskadiko Errugbi Federakundearen Kirol Diziplinako Araudiaren 30. artikuluan prozedura mota honetarako bildutako izapideak egin ditu eta epe barruan (5 egunetara) eman du ebazpena. Beraz, ezin da esan babesgabetasunik egon denik eta prozedurarik jarraitu ez denik.

**Bosgarrena.**- Behin diziplinazko prozeduraren legezkotasuna zehaztuta, errekurtsio-egileak planteatu dituen gainerako gaiak aztertu beharra dago.

Partidako jokoainari zehapen-espedita hasteko eskaerari dagokionez, Batzorde honek ezin du ezer esan, gure funtzioa kirol-arloko diziplina-ahalmena duten kirol organoek hartutako erabakiak berrikustea baita, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikuluan ezarritakoari jarraituz. Kasu honetan, guk esku hartu ahal izateko, aurretik federazioak zerbait egin beharko zukeen jokoainaren jardunaren inguruan eta kasu honetan ez da horrela izan.

Zigorra indargabetzeari dagokionez, azaldutako guztia aintzat hartuz gero, egindako alegazioetatik aparte, ez dirudi Getxo Rugby Taldeak jokoainaren jardunak duen egiazkotasun presuntzioa (PLAren 67. art.) indargabetzen duen frogarik aurkeztu duenik. Beraz, hilabeterako eteteko zigorra (zigorrik txikiena) zuzenbidera egokitzen dela ondorioztatu da, azaldutako egitateak klubetako teknikariek eta zuzendariak egindako arau-hauste larria direlako (PLAren 73. artikulua).

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

## **ERABAKI DU**

Getxo Rugby Taldea klubak Euskadiko Errugbi Federazioaren Diziplina Batzordeak 2016ko apirilaren 6an hartutako erabakiaren kontra aurkeztutako errekurtsua ezestea. Erabaki horren bidez, errekurtsua aurkeztu duen klubeko entrenatzaileari, [REDACTED] jaunari, hilabeterako eteteko zigorra ezarri zitzaion. Horrez gain, kluba ohartarazi zen eta 200 euroko multa ezarri zitzaion.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Donostiako

Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurso-egileak nahi badu bere helbidearen arabera dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 22a

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea